



Uholdeen kalteen inguruko bulegoa irekiko da

Pablo Barrio alkateak udalbatzarrean jakinarazi zuenez bulego bat irekiko du Udalak, uholdeen ondorioz kalteak izan dituzten herritarrei laguntzeko. Ibaia bi tokitan atera zela, baina kalte handienak estolderiatik ateratako urek eragin zituztela jakinarazi zuen eta udaltzain zein udal langileei esker oneoro kontrolpean izan eta kalteak izan zitezkeenak baino txikiagoak izan zirela. /4. orrialdea

Osasuna zaintzen ikasteko aukera

Gaur amaituko den Osasun Asteko hainbat hitzaldik interes handia sortu dute

Lasarte-Oriako Udalak Osasun astean gaixotasunei baino garrantzia gehiago eman nahi izan dio aurten hauek nola ekidin aztertu eta erakusteari.

Hainbat gai interesgarri jorratu dira astean zehar eta ugari izan dira Villa Mirentxuko aretora hurbildu diren herritarrak.

Hitzaldiak

Astehenean Lilima taldeko lagunak bikote harreman osasuntsuak nola eraiki azaldu zuten. Esate baterako, pertsona bakoitzaren bizipenek eta hezkuntzak harremanean izan ditzakeen garrantzia aztertu zuten.

Asteartean, arrakasta handia izan zuen elikadura eta emozioak hitzaldia eskaini zuen Egoitz Garro aholkulari makrobiotikoak. Elikadurak bizitzaren esparru ezberdinetan duen



Egoitz Garrok elikaduraren garrantzia nabarmendu zuen astearteko hitzaldian.

garrantzia erakutsi zuen saio atsegin eta interesgarrian.

Odol emaielen elkarteko lehendakariak, Sabin Urzelaik odol sistemaren eta odol emaitzen historia eta odol ematekin zein prozesu jarraitzen

duten azaltzeaz gain, odol emaielen etorkizunari buruz ere mintzatu zen asteazkenean.

Honetaz gain, atzo ostegun goizean, San Pedro parrokia ondoko Elizatze plazan odol emaielen elkarteko kideek

informazio karpa jarri zuten herritarrei odol emaielen buruzko informazioa eskaintzeko.

Era berean, atzo arratsaldean, Amets Arruabarrena medikua eta Rosa Gainza erizainak sintron sendagaiari buruzko mintzaldia egin zuten.

Besteak beste, antikoagulante honek gure osasunean sor ditzakeen arazoak azaldu eta herritarren kezak eta zalantzak argitu zituzten.

Amaitzeko, alkoholismoa

Eta gaur emango zaio amaiera Osasun asteari Villa Mirentxun, arratsaldeko 19:00etan eskainiko den hitzaldiarekin.

Alkoholismoa izango da azken saioan aztergai. Kristina Saez de Arregi psikiatria arloko medikoa eta Alkoholiko Anonimoak elkarteko kideak izango dira bertan gaixotasun honi buruz hitz egiteko. •

Herriko PSE-EEK biktimak gogoratu nahi izan zituen

Memoriaren egunean Lasarte-Oriako PSE-EEK Askatasunaren plazan biktimen omenezko ekimena egin zuen atzo eguerdian.

Azaroaren 10ean, bigarren urtez ospatzen zen Memoria-aren Eguna eta Jesus Zaballos Lasarte-Oriako sozialisten buruak, kide eta zenbait herritarren babesarekin, biktimen omenezko aldarria irakurri zuen Askatasunaren plaza berrian.

Zaballosek salatu egin zuen herriko Udalaren agintaritzan diren Bildu, EAJ eta PCLOko ordezkarien falta. Han juxtu,

bertan ez egotea, eta bestelako ekimenik antolatu ez izana kritikatu zuen: "Onartezina eta ezmorala da udal gobernuak azalduko jarrera".

Memoria aldarrikatu behar dela adierazi zuen sozialistak, "terrorismoak eragindako biktima eta familien mina ezin dugu ahaztu eta beraiekin gaudela gogoratu nahi diegu. Ez ditugu ahaztuko askatasuna eta demokraziaren alde lan egiteagatik bizia eman dutenak". ETaren adierazpenaren harira "indarkeriarik gabeko demokrazia izango gara, baina ez memo-



Askatasuna plazan Lasarte-Oriako PSE-EEK biktimei egindako omenaldia.

riarik gabekoa" Omenaldi modura irakurketa amaitzean, lore txuri sorta jarri zuen alka-

te ohiak "Geroaren memoria" eskulturaren bertaratutakoaren txaloen artean. •

ALBISTEA/3

Ibai ertzeko lanen ondorioz Uistin-eko bi eremu itxi dira

ERREPORTAJEA/5

Beltzak taldeko jokalaria ohiak arraunean aritu ziren Kontxan

KIROLA/6

Markak hobetuz hasi dute neguko denboraldia herriko igerilariek

Leire

JATEN DUGUNA GARA!



Arandegia

Eskerrik asko guregan jarritako konfidantzagatik

KALITATEA PREZIO JUSTUAN



ORDUTEGIA

Asteartetik larunbatera 08:00etatik 14:00etara
Astearte eta ostiraletan arratsaldeaz ere 17:00etatik 19:30era

Nagusia 35 • Lasarte-Oria • Tel.:943 371946
Mikeletes Pasealekua 8 beheka 6 • (Antiguo) Donosti • Tel.:943 217698

Neure kabuz



Bertsolari

Noizbait amestu zenuen bertsolari izan nahi zenuela. Azaroak 6, 17:40, 1.500 pertsona aurrean. Oholtzara igo ahala sentitu duzu txalo eta animo jakak gaindituko duela kanpoko euri jasa. Kosta zaizu honaino iristea. Alegin saioa, Zumarragan goizez, Andoainen gozatua, bidean istripuak, zuhaitz eroriak itxitako erre-pideak... oztopoz betetako bidea izan da.

Baina Azpeitin zaude, eta lehen agurra bota orduko ohartu zara ez dela zure eguna; ez duzula entzulea nahi adina gozaraziko. Horrek ematen dizu minik handiena. Eta pasa dira hiru ordu; ariketa gutxi batzuk asebate zaituzten arren iritsi da bukaerako agurra kantatzeko garaia. Azken puntuko errepikapena heldu aurretik hasi da Izarraitz txaloka, harrotu egin zara, eta sentitu duzu baietz, bertsolaria zarela, amets bat bete zaizula.

Oholtzakideak zoriundu dituzu, berrito lurrera jeitsi, amasa sakon hartu. A ze lasaitua! Berarentzat beti izango zarela txapeldun esan dizu norbaitek, udalekuetako umeez zoriundu, lagunnen mimoak eta pankarta gogoratu dituzu orduan eta amak ikusi orduko eman dizun muxua... Amonak telefonoz zera esan dizu penatuta zaudela aitortu diozunean: "nexka!, utzi txoakerik, 19 urte ditun eta nahikoa ein den!"

Eta ez dakizu nahikoa egin ote duzun. Badakizu 19 urte dituzula, gehiago egiteko gai zarela, batek baino gehiagok eskertuko dutela zure lehengo lasaitasuna, orain entzutea eta gozatzea tokatzen zaizula, lau urte dituzula aurretik... Eta batez ere, lau urte horietan plazetan zuretik kantatu nahi duzula noizbait zu bete zintuen entzulea asetzeko, asebetzeko. Bertsolari sentituzko.

Ane Labaka

Zorion-agurrak



Siena

Zorionak pitufina! Asko maite zaitugu! Paaaaa!!!



Malen

Txokomarrubizko 5 muxu! Zorionak familiaren partetik!



Alex

Zorionak guraso, neba-arreba eta izeba-osaban partetik.



Edorta eta Idoia

Zorionak "txipiroiak" eta txokomarrubizko bonboiak zuen egunean.



Amaier

Zorionak mari sorgina eta hiru muxu goxogoxo. Aitaxito eta amatxitoren partetik!



Hugo

Zorionak artista! Zure egunean abestuko dizugu, ondo pasa masapasa!



Aratz eta Garazi

Zorionak! Egun ona pasa eta muxu handi bana guraso, aitaxi-amatxi eta familiaren partetik.



Urko

Zorionak, oso ondo pasa eta muxu asko Odei, aita eta amaren partetik. Maite zaitugu.



Eneitz

Zorionak preziosa! 9 muxu potolo zure masail goxoetan, etxe-ko guztien partetik.



Dune

Zorionak zure zortzigarren urtebetetzean. Muxu handi bat familia guztiaren partetik.



Nahuel

Zorionak Pumita!! Muxu handi handi bat familia osoaren partetik!



Maialen

Zorionak printzesa zure bostgarren urtebetetzean familia guztiaren partetik.



Gorka

Zorionaak !! Bost muxu handi, Markel, amatxo eta aitaxoren partetik.

Azoka txikia

Eskaintza inmobiliarioak

- 70 metroko etxebizitza eguzkitzua alokatzen da Usturibile. Josune 649 424 826
- Garaje marra bat alokatzen da Urbarten. 648 614 769

Lan-eskaria

- Geriatrian laguntzaile, eskaermentua duen pertsona arduratsua jende adindua edo gaixoak zaintzeko edo garbiketa egiteko prest dago. Ordutua, gauetan edo

asteburuetan. Profesionaltasuna eta tratua ona eskaintzen du. Carlos (680-983527).

- Neska euskalduna eskaintzen da adineko pertsonak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko. Arduratsua eta esperientziaduna. 658741781 - Pili.
- Emakume eskaintzen da etxeko lanak edo pertsona zaharrak zaintzeko. Txostenekin. Harremanetarako, 648 526 080.
- Erizaintza eta geriatrian trebatutako gazte arduratsua zaharrek zaintzen lana egingo luke. 679 526 305

Oharrak jartzeko:

txintxarri@txintxarri.info • www.txintxarri.iragarkilaburrak.com
www.txintxarri.info • Geltoki kalea 4 • Tel.: 943 366858



Heriotzak

• Juliana Abalabide Iradi, azaroaren 8an, 91 urte zituela

Jaiotzak

- Julen Robles Najera, azaroaren 4an
- Gari Goñi Izagirre, urriaren 31 ean
- Daniel Valdes Rodriguez, urriaren 28an
- Elaija Rodgers Pikabea, urriaren 26an



Joxerra Aizpurua

Sasoeta Zumaburu ikastetxea

Urteak eman dituzu hezkuntzaren izenean hizkuntza oinarri hartuta aritu zara lanean zenbat asmo ta ahalegin haurtxoen aldamenean ta beti egon zara hor behar izan dugunean Heriotza da helmuga bizitzaren oihanean nahiz triste sentitu ginen joan zinen egunean ez gara kiatituko minean ta iraganean irribarre egingo dugu oroitzen zaitugunean.

Guardiak

EGUNEKOAK: 09:00-22:00

Ostirala, 11

Gil, Kale Nagusia 24
Tel.: 943 361529

Larunbata, 12

Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea
Tel.: 943 361774

Igandea, 13

Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea
Tel.: 943 361774

Astelehena, 14

Acha-Orbea, Hipodromo et. 6
Tel.: 943 363549

Asteartea, 15

Urbistondo, San Frantzisko I
Tel.: 943 366567

Asteazkena, 16

Orue, Jaizkibel plaza 2
Tel.: 943 362652

Osteguna, 17

De Miguel, Kale Nagusia 32
Tel.: 943 371151

GAUEKOAK: 22:00-09:00, egunero

Chula, Kardaberaz 48 Hernani, Tel.: 943 551793

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea




GFAko Kultura eta Euskara Departamendua



EUSKO JAURLARITZA KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Ttakun Kultur Elkarte, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.800 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.

Txintxarrik ez du bere gain hartzen irizti-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.



Irudian, interzeptorearen lanak Blas de Lezo eta Uistin kaleetako eremuan sortuko dituen aldaketak. LASARTE-ORIAKO UDALA

Intertzeptorearen lanak fase berrian sartu dira

Ibai ondoko bi eremutan egingo dira lanak orain

Lasarte-Oria eta Usurbilgo saneamenduko interzeptore orokorreko sarea osatzeko lanak direla eta Uistin kaleko eremu bat itxia egon da.

Lan hauek bukatuta, Lasarte-Oriako Udalak jakinarazi du, Oria ibaiaren paralelo doan Uistin Kaleko adarreko 3. eta 4. gauzatze-faseari ekin ziotela atzo.

Espania Iparraldeko Ur Konfederakundeak sustatzen duen obra honen hirugarren fasea, Michelingo garajen eta Blas de Lezo kalearen artean egingo da, eta laugarrena, berriz, Juan XXIII plazako gara-jeetako irteeraren eta Hipodromo

etorbidearen artean.

Lanen iraupena, hilabete-koa izango da 3. faserako eta sei hilabete-koa laugarrenetarako.

Aldaketak

Laugarren faseko lanak irauten duten bitartean, Uistin zeharkaleak, ibaiaren ondoan dagoenak, ez du izango Hipodromo etorbidera irteerarik.

Horregatik, Juan XXIII.aren Plaza eta Zubietza Plazako lurpeko gara-jeetako sarrerarirteerak, behin-behinean, Hipodromo Etorbidetik egingo dituzte autoek.

Era berean, hirugarren faseko lanak irauten duten bitar-

tean, Blas de Lezo kaleko atzekaldetik ezingo da Uistin kale-rantz joan.

Ondorioz, Michelineko lurazpiko aparkalekuko sarrerarirteerak, behin-behinean, Blas de Lezo kalearen atzetik egingo dituzte automobileren lanak amaitu arte.

Honetaz gain, Uistin kaletik Hipodromorantzko automobilerantzako ibilbidea behin-behinean desbideratuko da Blas de Lezo eta Geltoki kaleetatik barena.

Gauzak honela, alkatetzak barkamena eskatu nahi die herritarrei lanek sor ditzaketen eragozpenengatik.

BIYAK BAT ELKARTEA

Baztango bailarara irteera

Biyak Bat erretiratuaren elkarteak azaroaren 25ean irteera antolatu du Baztango bailarara. Bertan San Salvadorreko monastegia eta errota zaharra bisitatuko dituzte. Hamaiketako eta bazkaria Eli-zondoko Baztan Hotelean izango dira. Bazkal ostean, Superbingoa eta dantzaldia egingo dira. Irteeraren prezioa 34 eurotako da. Izena ematea Biyak bateko egoitzako bulegoan egingo da, 10:30etatik 12:30era eta plazak amaitu arte egingo da irekia.



Karma Duo taldea Zabaletan.- Atzo, ostegun iluntzean kantaldia eskaini zuten Kubako Karma Duo taldeko hiru partaideek Zabaleta auzoan. Argazkian hiru kubarrak ekitaldia hasi aurretik.

JANGELA

Jangelan izen ematea itxi du Udalak

Udal Eskola-Jangela zerbitzuan izena eman duten erabiltzaileen kopurua dela eta, zerbitzu horretan 2011-2012 ikasturteko matrikulatzeko epea itxi behar izan duela jakin arazi du Udaleko hezkuntza sailak. Neurri horrekin, Udalaren asmoa zerbitzu duina eta kalitatezkoa bermatzea da, eta Udaletik adierazi dutenez "hori ezinezkoa litzateke inskripzio gehiago onartuko balira".

Udalaren ustez, lokalaren neurria, segurtasun neurriak, tresneria eta mahai-aulkien kopurua gehienezkora iritsi dira. Honela, azaroaren 7tik aurrera, Jangela Zerbitzuan izen emate berriek itxaron-zerrenda bat osatuko dute, bajaren bat gertatzen denerako.

TTAKUN K.E.

Batukada taldea egiteko bilera

Azken urteetan, Ttakun Kultur elkarteak antolatu eta eskaini dituen ekintza ugarien artean, Batukada taldea dago. Taldeak San Pedroetan eta beste hainbat ekitaldietan parte hartu zuen martxan egon zen bi urteetan. Taldeak baditu 20 bat musika tresna, neurri ezberdinetako danbor, atabal, surdo, agogo, tan tan,... erabiltzeko eta erritmo desberdinak egiteko. Urte beteko etenaldiaren ostean, antolatzaileek proiektua berritua berri ere martxan jarri nahi dute eta bilera bat egingo dute taldearen entsegu egunak, orduak, etb. zehazteko. Bilera azaroak 16an izango da 18:00etan Ttakuneko gazte lokalean, Iñigo de Loyola kalean.

IKASTAROA

Erromerietako dantzak ikasteko aukera

Ttakun kultur elkarteak bigarrenaz Muxikoak ikastaroa jarri du abian. Ikastaroa azaroaren 8an hasi zen arren, elkarteak herritarrik animatu nahi ditu honetan parte hartzea.

Dantzaldi eta erromerietan dantzatzaren diren piezak ikasteko aukera ona da elkarteak eskaintzen duena, David Egizabalek dantzarik ezagunenak erakutsiko baitizkie. Ikastaroa euskaraz da Ttakunen helburua iharduera ezberdinak egin, ikasi eta lagunartean ondo pasatuz euskararen erabilera bultzatzea baita. Adin edo maila mugarik ez duen ikastaroa da, eta gainera ikasleek nahi eta gogetara egokituko dena.

IRTEERA

Basaundi-Leitza bizikletan joan etorria

Urtero bezala bizikleta gainean Basaundi eta Leitza arteko joan etorria egingo dute herritar batzuek azaroaren 19an. Goizeko 8:15etan elkartuko dira Basaundin, Leitzaan egingo dute hamaiketako eta gero itzuli berritua bizikleta gainean. Ondoren nahi dutenek Basaundiko Buruntz-Azpi elkartearen bazkaltzeko modua izango dute. Beste urtetan 20 bat lagunek parte hartu du 60-70 kilometro inguruko bizikleta irteera honetan. Antolatzaileek deia luzatu dute nahi dutenek parte hartu dezaten. Nahikoa izango da hilaren 19an, goizeko 8:15etan agertzea. Esan bezala nahi dutenek une horretan esan eta elkartearen bazkaltzeko aukera izango dute.



Diaporama zikloa ederki hasi zen.- Hainbat herritar eta mendigoizale bildu ziren asteazkenean Jalgi Kafe antzokian. Alex Tetuanek, Tomas Maizek eta Txomin Otaegik Marokora eta Italiako ipar mendebaldean dauden Dolomitetara, egindako mendi bidaiei buruzko diaporama eskaini zuten. Bertan izandako bizipenak ere ezagutu zituzten ikusleek.

Gai ugari nahasi ziren Udalbatzarrean

■ Atsobakar erresidentziako egoeraren azterketarekin batera alderdi eta herritarren galdereskaerak izan ziren batzarreko puntu garrantzitsuenak ■ Gaur ordenantzen txanda izango da

Astearte arratsaldeko Udalbatzarrean, gai nagusia Atsobakar erresidentziako egoera izan zen.

Gipuzkoako Foru Aldundiak dagozkion eskumenak bere gain ez hartzeak Udalari sorrarazten dion defizitari buruz Udaleko talde sozialistak aurkeztutako mozioa eztabaidatu behar zen arren, Bilduk aurkako mozioa aurkeztu eta aurrera atera zen.

Gorka Lizarraga Gizarte Zerbitzuetak zinegotziak azaldu zuenez, PSEk indarrean dagoen legedia alde batera uzten du bere proposamenean eta Atsobakarreko defizitak 2009 urteetan gorakada handia izan du.

Onartu zen proposamenean, Eusko Jaurlaritzari legea bete arazteko eskatzen zaio. Legearen arabera, Foru Aldundiak eskumen batzuk ditu eta erresidentzia defizita bere gain hartu beharko luke; baina Udalek ere haien eskumenak dituzte eta kasu batzuetan, etxer etxeko laguntzaren kasuan, esate baterako ez dituzte betetzen.

Era berean, aldatuta hauek guztiak aurrera eramateko, erakunde desberdinen artean dagoen finantzen egokitzea egiteko eskatzen da.

Azkenik, PSE-Eeri eskatzen zaio 2009 urtean sortutako

gastuen igoeraren zergatiak argitzeko. Eztabaida luze baten ostean, Bildu, EAJ eta LOHP alderdien bozkei esker onartu zen proposamena.

Kredituak eta isunak

Bestalde, 2011 ekitaldian kredituak aldatzeko gaur arte bideratu ziren dosierren berri eman eta kreditu gehigarriak aldatzeko txostena onetsi zen, Bildu, EAJ eta LOHP taldeen aldeko bozkarekin.

Honen bitartez, Eusko Jaurlaritzak kudeatu beharko lituzkeen jangela eta haur eskolako kredituaren kopuruari dirua gehituko zaio.

Era berean, ekainaren 8an alkatetzak emandako dekretu baten berri eman du Pablo Barrio alkateak. Udaltzainek hauteskunde kanpaina hasieran egin zuten japoniar erako greban jarritako ehundaka isun bertan behera utzi zituen Jesus Zaballos aurreko alkateak, hain juxtu hauteskunde kanpainaren erdian sinatu zuten dekretu honen bitartez.

Pablo Barrio alkateak jakin arazi zuenez, "isunak ongi jarriak izan eta horietako batzuk dagoeneko ordainduta zeuden eta prebikazioa izan daiteke".

Zaballosek berriro ere isunak kenduko lituzkeela adierazi zuen eta prebikazioari



Atsobakar erresidentziako eskumenak eta defizita izan ziren eztabaidagai udalbatzarrean.

buruz, horrela nahi duenak salaketa jarri dezala esan zuen.

Galderak eta eskaerak

Azkenik, alderdiek eta herritarrek galderak eta erreguak egin zituzten.

PSEk bere egin zuten aurreko udalbatzarrean herritar batek egindako eskaera, Bidegiri bigarren saihesbideko lanak bukatzeko eta soina murrizteko zuhaitzak landatzeko eskatzearena alegia. Nerea Sanchez alkateordeak erantzun zion goizean bertan bilera egin eta negoziaketetan ari direla.

Bestetik bi galdera egin zituen Zaballos alkate ohiak, batetik, Kotxerako etxebizitzaren proiektuari buruz galdetu eta enprekin hitz egiten ari direla erantzun zion Nerea Sanchezek.

Bestetik, Gazteleku noiz jarriko den martxan eta zein izango den bere planifikazioa jakin nahi izan zuen.

Tasio Arrizabalak erantzun zion martxan jartzeko prest dagoela eta proiektua lantzen ari direla, "herriko gazte guztiaren gune izatea nahi dugulako".

Ikusleen artean ziren herritarrei ere galdera edo proposamenak egiteko aukera ematen die alkate berriak eta Aralarren izenean, Mayi Bengoetxeak egungo Gobernuak Somotoko auziarekin aurrera jarraituko duen galdetu zuen eta gaia mahai gainean dagoela erantzun zion alkateak.

Bestalde, udaletzeko balkoian dagoen "ETA NO/ETA EZ" pankarta kentzeko eskatu zuen eta eskaerarekin bat egin zuten udal gobernuko partaideak.

Era berean, Michelingo kirol gunearen azpian garajea duen herritar batek, asteburuan izandako euriteek haien garajeetan eragindako kalteen erantzuleak bilatu behar direla azpimarratu zuen. Izan ere, herritarrek azaldu zuenez, garaje horietan ez zen ura kaletik sartu, obren amaieran akatsak egonagatik baizik.

Hirigintzako arduradun Sanchezek egoera aztertzen ari direla aipatu zion herritarri: "egoeraren informea eskuan izanik, enpresa eraikitzaileekin bilera izan dugu eta agian salaketa jarri beharko dugu".

Ordenantzak

Bestalde, gaur, ostirala, 8:00etan ez hizko udalbatzarrean gai garrantzitsua jorratuko da, 2012 urteko ordenantzak. •

Uholdeek kaltetutako herritarrentzako bulegoa ireki du Udalak

Asteburuko euriteak direla eta, Oria ibaia bi puntuetan atera zen herrian, Erribera kalean eta Michelin fabrika inguruan; astelehenean larrialdi egoera igaro ostean, garbiketa lanetan edo kalteak aztertzen ikusi genituen Erribera edo Uistin kaleko herritarrek.

Pablo Barrio alkateak ere igandean bizitako egoeraren irakurketa egin zuen Udalbatzarrean. Alkateak aipatu zuenez, herrian izan ziren "arazo gehienak estolderiatatik ateratako urak eragin zituen, hainbat garaje, lokal eta biltegietan arazo eta kalteak sortuz".

Abisuak

Barriok azaldu zuenez Udalak baliabide guztiak jarri zituen martxan eta momentu oro kontrolpean izan zuten egoera udaltzain eta brigadako langileei esker.

Horrela igande goizean zehar abisuak eman zitzaiz-



Oria ibai Erribera kalean egin zuen gainetza igandean; astelehenean, bertako lokal, garaje eta bitokietako jabeak urak sortutako kalteak aztertu eta garbiketa lanak egin behar izan zituzten.

kien lokaletako jabeek egoeraren berri emanez, kotxe edo bestelakoak ateratzeko esanez eta horri esker sortutako kalteak izan zitezkeenak baino txikiagoak izan ziren.

Kaltetuei laguntza

Era berean, alkateak kaltetuei jakinarazi nahi die, herritarrek

dituzten beharrak asetzeko, hau da, edozein erreklamazio, aholku, laguntza edo eskaera egin nahi izanez gero, udalan bertan irekiko den bulegora joan edo 943 376 185 zenbakira deitu ahal dezaketela.

Etxeetan laguntzen irizpideei buruzko bandoak jarriko dituzte. Hala ere, herritarrek



jarritu beharreko pausuak azaldu zituen alkateak.

Segurua izanez gero, probak bildu eta seguruarekin harremanetan jarri behar dira. Ostean, Udalean egongo den kontsurtzio eskaera orria bete behar dute.

Segurua ez dutenek, berriz, Udalera jo beharko

dute. Izan ere, 2005eko 307 dekretuaren bidez laguntzak eskatu daitezke. Kalteak handiak izanez gero, dirulaguntza bereziak eskatu ahal izango dira.

Era berean, Udaletik ohar-tarazi dute, prozesu motela dela eta dirua epe luzera jaso ohi dela. •

Egun batez arraunlari

■ Beltzak-Ostadar Jalai errugbi taldeko beteranoak eta Arraun Lagunak-eko arraunlari ohiak arraunean egin zuten Kontxan. ■ Hurrengoan, arraunlariak errugbian ariko dira Lasarte-Orian

Euskadiren eguna zela eta jaieguna izan zen urriaren 25a, eta egun aproposa iruditu zitzaion Beltzak-Ostadar Jalai errugbi taldeko beteranoei kuttuna duten kirola utzi eta lehen aldiz traine-ru batean sartzeko. Gogoz ekin zioten herrikoek Donostiako Arraun Lagunak elkarteak botatako erronkari. Arraunean nola egiten den jakiteko azalpen labur batzuk entzun, beroketak egin eta prest ziren errugbi jokalaria ohiak Kontxako Badian arraunlari profesionalen antzera ibiltzeko.



Saisoiko daudela erakutsi zuten lasarteoriarrak Uretan Kontxako bandera jokoan balitzan ekin zioten arraunari. BELTZAK

Maidar AZURMENDI

Lasarte-Oriako Beltzak-Ostadar Jalai errugbi taldeko kideak, duela gutxi Donostiako Arraun Lagunak elkartearen izan ziren Javier Amilibia presidentearen omenezko bazkarian sukaldari eta zerbitzari lanetan laguntzen. Egun horretan eman zitzaion hasiera urriaren 25ean gauzatuko zen esperientzia berriari.

Lagun artean egindako bazkari horretan, arraunlari ohiak erronka luzatu zieten herriko kirolari beteranoei eta hauek, noski, onartu egin zuten.

Erronka? Kontxa inguruan arraunean egitea. Sekula traineru batean ibilitakoak ziren lasarteoriarrak baina hala ere, Ritxar Espinosa eta Aitor Urangaren hitzetan, ekimen polita eta zirragarria iruditu zitzaion bertan bildutakoiei.

Horrela, urriaren 25eko goizean badian arraunean ibili ziren Donostiako Ur-kirolak eta Fortuna kirol elkarteak utzitako traineru eta bi yola-tan, batetik Lasarte-Oriako Beltzak-Ostadar Jalai errugbi taldeko beteranoak, eta bestetik Indo anaiak eta semea, Fortuna zein Urki-ko beterano batzuekin batera.

Lehenengo aldia

Hitzordua goizeko 9:00etan izan zen Donostiako kaian. Bertan bildu ziren itsasoarekin lehen harremana izateko asmotan lasarteoriarrak.

Arraunlari beteranoen azalpenak adi-adi entzun ostean, arraunean nola egiten den lehorean probatu eta beldurrik



Gustura geratu ziren egindako lanarekin parte hartu zuten guztiek eta talde argazkian denak irripartsu. BELTZAK

gabe itsasoratu ziren errugbi jokalariaik arraun munduko lagun horiekin.

Aitor Uranga han egon zen eta bere hitzetan lan zaila da arrauna: “kanpotik agian ez dirudi hain gogorra denik baina oso kirol neketsua da”. Esperientzia “informala izan zen” inongo helbururik gabekoa, prentsan argitaratu den informazioa ezeztatuz. “Goiza lagun artean ondo pasa eta hain desberdina den kirolean gure burua ikusteko egindako saiotxoia izan zen. Ez dugu arraun talderik sortuko”.

Lehen arraunkaden zailtasuna gaingiduta, Kontxako Badian ordu betez “paseoan” ibili ziren herriko kirolariak. “Arraunean lasai ibili ginen gure indarrak neurtzen eta paisaiaz zein itsasoaz disfrutatzen. Nahiko berde gaude oraindik”.

Ondoren, guztiak erronka hasi zen lekura bueltatu ziren,



Errugbi taldekoek arrauna hartu zuten egun batez. BELTZAK

Arraun-Lagunak elkartera. Han babarrun jana egin zuten galdutako indarrak berreskuratze-ko asmotan.

Errepikatze

Guztiantzat esperientzia polita izanik, errepikatze asmoa dagoela diote Ritxar eta Aitorrek. “Urtean behin edo bitan

egiteko moduko ekintza da eta errepikatze asmoa dago, bai. Agian uste baino lehenago”.

Gainera arraunlariak errugbian zer den ere probatuko dute laster, “gu arraunean moldatu garen moduan, errugbian euren trebezia erakutsi beharko dute”. Oraindik truke honetarako data finkorik ez dago “urtea bukatu

baino lehen antolatzea gustatuko litzaiguke”.

Askoren laguntza

Beltzak-Ostadar Jalaiko kideek esker ona adierazi diete bereziki Fortuna eta Ur-kirolakeko arduradunei, izan ere, trainerua eta yolak horrelako lagun arteko ekimenerako utzi zituzten oztoporik jarri gabe.

Bestetik badira lasarteoriarrak laguntzen dituzten bestelako patrozinatzaileak eta horiei ere eskerrak eman nahi dizkiete “garrantzitsua da eskaintzen diguten laguntza aitortzea, besteak beste Felix Santos, Abere haragiak-ekoak, Txitarro erretegiko lagunak eta Costa Vasca hotela. Hauen babes ekonomikoa garrantzitsua da gure lanean jarraitu ahal izateko.

Bestalde, lagun giro hone-tan bada bi kirol hauen arteko elkarlanerako parada. Arraun lagunakekoak, arraunean hasi nahi duten gazteak behar dituzte. “Gure laguntza eskaini diegu eta herrian gazteren batek arraunean hasi nahiko balu, gurekin harremanetan jartzea besterik ez du izango aurrerantzean”. Beraiek jarri-ko dira talde donostiarrekin harremanetan helburua gazte-entean kirola sustatzea baita.

Hasi berria den lankidetzeta eta laguntasuna emankorra izango dela ziur dute eta horretarako bidea zabaltzeko zuten bi taldeek erronka bezala hasi zen ekimenean. Akaso berriz Kontxako banderan lehiatzen ikusiko al ditugu lasarteoriarrak? •

Bikain hasi dute denboraldia igerilariek

Markak hobetu zituzten Buruntzaldea IKT-ko kideek neguko denboraldiko lehen txapelketan

Lehenago larunbatean eman zioten hasiera Buruntzaldea Igeriketa Taldeko kideek txapelketa denboraldiari. Lasarte-Oriako udal igerilekuan parteharte eta errendimenduko ligako lehenengo jardunaldian 20 marka pertsonal hobetu zituzten igeriketa taldeko gaztetxoek. Horietako marka bati esker, Naiara Lizasok Neguko Euskal Herriko Txapelketan parte hartzeko txartela eskura du.

Lasarte-Orian antolatutako igeriketa jardunaldian Buruntzaldea IKT-ko 15 igerilari izan ziren lehen eta Borja Apeztegia entrenatzailearen estez, orokorrean lan txukuna egin zuten. "Jardunaldi luzea izan bazen ere, gure igerilariak amaiera arte gogotsu aritu ziren eta guztira 20 marka pertsonal haustea lortu zuten" adierazi digu.

Lehendabiziko proban, 100 libreetan, Garazi Alkorta, Naroa Goikoetxea, Mikel Esnal, Iñigo Ibarburu, Asier Lopez de Arregi, Mikel Arribillaga eta Kevin Iglesias aritu ziren.

Nesketan, Naroa bigarren eta Garazi hirugarren izan ziren eta biek haien markak hobetu zituzten.

Parte hartu zuten bost mutilek, berriz, lehen bost postuak eskuratu zituzten. Nahiz eta Arribillaga izan marka hobetu zuen bakarra, gainontzekoak haien denboraren parean ibili ziren.

Parteharte mailako proba berean, berriz, Alberto Alba aritu zen. "Berarentzat lehen aldian zen eta urduri xamar bazegoen ere gogoz atera zen lehiaketara" adierazi digu entrenatzaileak.

50 tximeleta proban ere txukun aritu ziren igeriketa taldeko gazteak.


Itsaso Tolosa bigarren izan zen eta Garazi Alkorta hirugarren. Mutiletan aldiz, Haitz, Esnal eta Asier aritu ziren eta hurrenkera horretan lehen hiru postuak eskuratu zituzten Gainera, Asierrek marka pertsonala egin zuen.

Borja Apeztegiak Asier Lopez de Agirrerren lana azpimarratu du "hilabete askotan belauneko operazioa dela eta igeri egin gabe egon ondoren lan bikaina egin zuen".

Euskal Herriko txapelketa

Ostean, jardunaldiko proba luzeak, 800 libre eta 400 estiloak, jokatu ziren.

800 libreetan, Naiara Lizaso, Jone Vazquez, Kevin Igle-



Buruntzaldea IKT-ko hamabost gazteek lan ona egin zuten neguko denboraldiko lehenengo jardunaldian.

sias eta Haitz Mitxelena aritu ziren eta laurak marka pertsonal egin zituzten.

Gainera, Naiarak 11'53"34 marka egin zuen eta ziurrenik Neguko Euskal Herriko Txapelketan aritzeko txartela emango dio.

Bestalde, 400 estiloak proban Mikel Soto eta Iñigo Ibarburu aritu ziren. Apeztegiak azaldu digunez, Sotok lan bikaina egin zuen lehen aldiz egiten zuen proba honetan eta Iñigok aldiz sekulako indar erakustaldia egin zuen proba honetan.

Eta 200 bizkar proban, Mikel Arribillagak eta Itsaso Tolosak lan txukuna egin zuten.

Azken proba indibiduala 100 estiloak izan zen. Itsaso, Naroa, Garazi eta Jone aritu ziren nesketan. Itsasok bere marka onena berdintzea lortu zuen eta beste hirurek marka pertsonalak egin zituzten.

Mutiletan, Mikel Soto eta Mikel Esnal aritu ziren eta Sotok marka pertsonala lortu.

Erreleboak

Saioa amaizteko 4x50 libre erreleboa jokatu zen.

Nesken taldea bigarren izan zen eta lehenengo postuan Naroa Goikoetxeak marka pertsonala egin zuen.

Mutiletan, bi talde aurkeztu zituen Buruntzaldeak.

Azkarrena Haitzek, Iñigok, Asierrek eta Esnalek osatutako izan zen. Hauek bigarren sailkatzeaz gain, taldeko marka berdintzea lortu zuten. Gainera, lehen postuan, Haitzek marka pertsonala egin zuen.

Bigarren taldeak, berriz, Kevinek, Mikel Sotok, Arribillagak eta Oierrek osatutakoak laugarren postua eskuratu zuten.

Borja Apeztegiak adierazi digunez, "pozagaria da urteko lehen jardunaldian markak hausten direla ikustea. Zerbait arazo tekniko ikusteko ere oso baliagarria izan da. Datozen hilabeteetan horien gainean lan egingo dugu".

Kiroletako agenda

FUTBOLA

Larunbata 12

09:30ean, Astigarragako Mundarro-Texas Lasartearra (I. Kadetea) Zakurmendegi, Astigarragan.

10:00etan, Ostadar-Antigua Luberrri (I. Infantil) Michelinen.

10:30ean, Tolosa-Ostadar (Infantilen Ohorezko maila) Usabal, Tolosan.

11:30ean, Ostadar-Tolosa (Kadeteen Ohorezko maila) Michelinen.

13:00etan, Ostadar-Lengokoak (Infantil Txikiak, kopa) Michelinen.

15:30ean, Ostadar-Usturbil (Erregional Gorena) Michelinen.

15:30ean, Tolosa-Ostadar (Emakumezkoen Erregionala) Usabal, Tolosan.

15:30ean, Astigarragako Mundarro-Ostadar (Jubenilen Ohorezko maila) Zakurmendegi, Astigarragan.

17:15ean, Texas Lasartearra-Urola (I. Erregionala) Michelinen.

Igandea 13

09:00etan, Antigua Luberrri-Texas

Lasartearra (I. Jubenila) Berio, Donostian.

10:30ean, Ostadar-Euskalduna (I. Kadetea) Michelinen.

12:00etan, Asoleus-Ostadar (I. Erregionala) Herrera, Donostian.

12:30ean, Ostadar-Urola (Alebinak) Harane, Usturbil.

ARETO FUTBOLA

Ostirala 11

HERRIKO TXAPELKETA

19:30ean, ISU Leihoak-Naiban

20:30ean, Ilargi-Illum

Larunbata 12

17:30ean, Buruntza K.T.Aldaz H.K.-Santurtzi (Nazional B maila) Kiroldegian.

HERRIKO TXAPELKETA

Areto-futboleko pista

09:10ean, Balerdi Harategia-Trumoi

10:10ean, Izkiña-Oria kristaldegia

12:10ean, Txindoki-El Punto

13:10ean, Izarra-Ayete

Pilotalekuan

11:10ean, Indaux-Tiburones Rojos

Igandea 13

18:00etan, Berri Otxoa-ISU Leihoak (Euskal Liga) Berriotxo eskola, Bilbo.

HERRIKO TXAPELKETA

10:00etan, Buenetxea-Bar de Mau

11:00etan, Viña de Mar-Dakara



PILOTA

Ostirala 11

19:15ean, Oiarpe I-Intza (Eskuz binaka, I. mailako kadetea) Madalensoro, Oiartzunen.

19:30ean, Intxurre 2-Intza (Eskuz binaka, 3. mailako seniorra) Alegian.

20:30ean, Hernani I-Intza I (Eskuz binaka, infantilak I. urtea) Hernanin.

Larunbata 12

16:00etan, Intza 2-Hernani 3 (Eskuz binaka, infantilak 2. urtea) Michelingo pilotalekuan.

17:00etan, Gazteleku 3-Intza I (Eskuz binaka, alebinak 2. urtea) Andoingo ikastola.

17:00etan, Gazteleku 4-Intza I (Eskuz binaka, infantilak 2. urtea) Andoingo ikastola.

17:00etan, Zestoa 1-Intza 2 (Eskuz binaka, alebinak 2. urtea) Zestoon.

ATLETISMOA

Larunbata 12

10:30ean, Landaberri eta Sasoeta ikastolako gaztetxoek pistako alebin eta infantilen mailako eskolarteko lehiaketako lehenengo saioa dute, Hernanin.

Igandea 13

11:00etan, herriko hainbat korrikalari Behobia-Donostia proban parte hartuko dute.

TXIRRINDULARITZA

Igandea 13

10:00etan, Bazpi txirrindularitza eskolako gazteek Gipuzkoako trofeoako lehenengo jardunaldian parte hartuko dute, Donostiako Antonio Elortza Belodromoan.

JUDO

Larunbata 12

10:00etan, LOEko Francisco Morales judoka veteranoak Europako txapelketan parte hartuko du, Austrian.

Igandea 13

10:00etan, LOEko judoka gazteak Mikel Salazar Oroimenezkoaren VI. nazioarteko txapelketan parte hartuko dute, Amurrian.



Egunero

Erakusketa

SOFIA AROSTEGIEN APUNTEAK erakusketa zabalik da azaroan zehar, JALGI KAFE-ANTZOKIAN.



Ostirala, 11

Hitzaldia

Osasun astearren barruan, "ALKOHOLISMOA: GAIXOTASUN BAT" gaia jorratuko du KRISTINA SAEZ DE ARREGI psikiatria medikuak eta ALKOHOLIKO ANONIMOMETAKO kideek. VILLA MIRENTXUN, 19:00etan.

Diska aurkezpena

MIREN FERNANDEZ abeslariaren diska berriaren aurkezpena, Kutxaren babesarekin: "LAZ-TANTZEN NAUEN ESKUA". MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEAN, 20:00etan.

Larunbata, 12

Antzerkia

HAURRENTZAKO ANTZERKI sailaren barruan, ingurumenarekin

Ska-rekin gozatzeko gaua

Lagun talde batek 2008an, Donostian, sortutako proiektua da SKAKEITAN. Bere izenak dioen bezala, taldeak ska doinuak ditu gustuko, baina honetaz gain reggae, punk eta beste estiloetako abestiak ere ditu bere errepertorioan. Euskal Herriko hainbat txokoetara eraman dute haien erri-timoa, eta gaur Lasarte-Oriaren txanda da.

OSTIRALA 11
23:00ETAN
JALGI KAFE ANTZOKIAN

zer ikusia duen ANTARTIKAKO LOREA lana eskainiko da. MANUEL LEKUONA KULTURETXEAN, 18:00etan, EUSKARAZ. Sarrera, 3,30 euro.

Igandea, 13

Zinea

HAURRENTZAKO ZINEA sailaren barruan, OTRA PELÍCULA DE HUEVOS Y UN POLLO marrazki bizi-

duneako filma eskainiko da. MANUEL LEKUONA KULTURETXEAN, 18:00etan, GAZTELANIAZ. Sarrera, 3,30 euro.

Asteartea, 15

Ipuin-kontalaria

KONTU KANTOIKO lagunek 6, 7 eta 8 urteko gaztetxoei zuzendutako IPUINAREN ORDUA eskainiko du. KULTURETXEKO HAURREN LIBURUTEGIAN, 18:00etan, EUSKARAZ

Asteazkena, 16

Hitzaldia

Haur eta nerabeen guraso eta hezitzaileentzako hitzaldien zikloan, "LOTARAKO ORDUA DA" PILAR SEMINARIOREN eskutik. MANUEL LEKUONA KULTURETXEAN, 18:00etan

Diaporama zikloa

JEXUX PRESAK TANZANI ETA KILIMANJARORA egindako bidaieren berri emango du. JALGI KAFE ANTZOKIAN, 21:30ean.

Osteguna, 17

Dantza

LASARTE-ORIA DANTZAN ekimeneko hirugarren saioa "EN ATTENDANT L'INTENDU" eskainiko dute. MANUEL LEKUONA KULTURETXEAN, 20:00etan. Sarrera, 6 euro.

Oharrak

EHNarekin bozkatu

Bai Euskal Herriari taldeak deialdia luzatu nahi die herri-tarrei azaroaren 20an, hauteskundeetan Euskal Herriko Naziotasun Agiriarekin (EHNA) bozkatu dezaten.

Marrazki eta margo eskolak

Lasarte-Oriako Bizilagunen elkarteko marrazki eta margo eskolan oraindik plazak badaude.

Eskolak asteazkenetan eta ostiraletan 18:00etatik 19:00etara eta larunbatetan 09:30etik 11:30era izango dira. Interesa dutenek kulturetxeko 2. solairura jo behar dute.

Udako Txokoetako argazkiak

Gaur, urriaren 17tik aurrera prest egongo dira Udako Txokoetako argazkien CDak.

Txokoetan ibili direnen haur guztiei banatuko zaizkie eta jasotzeko Ola kalea 1ean dagoen Amaraun Ludotekatik pasa behar da 17:00etatik 20:00etara azaroaren 25a arte.

Euskal Dantza taldea

Landaberi BHLn entsaiatzen duen Euskal Dantza taldea, Felix Telleriak zuzendutakoa, lanean hasiko da.

Entseguak astearte eta ostegunetan izango dira 20:00etatik 21:00etara.

Oharrak jartzeko:

Geltoki kalea 4
Tel.: 943 366858
txintxarri@txintxarri.info

Liburutegiko ordutegia



Asteleheneretik ostiralera 10:00 - 13:00
eta arratsaldetan 16:00 - 21:00
Larunbata 9:30 - 13:00

Manuel Lekuona kulturetxea • Geltoki kalea 18
Tel.: 943 376181

Esazu irrati programazioa



Ostiralero programa!

FMko 105,5-ean izango gaituzue ostiralero 9:30etik 10:45era

Esakitza

Auzolan topaketak, zaharrak berri Usurbilen

Behin batean, aspaldi-aspaldi, mendiek eta animaliek izenik ez zuten sasoiaren, ba omen ziren Urola ibaiaren inguruan bi mendi nagusi. Eta biek ere, bazter haietako nagusitasuna aldarrikatzen zuten, ospetsua omen zen bien arteko ezinikusia. Eta horrela behintzat, honelaxe galdetu omen zion mendi batek besteari egun batean: - Hi zer haiz? Eta besteak berriz honelaxe erantzun: - Hi bezalako zazpi!

Eta handik aurrera, bata Izarraitz eta bestea Izazpi izan omen ziren.

Eta egjak egi, ederrak eta bereziak dira elezaharrak, baina aldi berean gogor eta zakarrak ere badira.

Sinismen zaharrek gure mundua ulertzeko eta antolatze bidea ematen digute eta kontakizun bakoitzak bere esanahia dauka. Eta agian arestiko kontakizun txikiarena, erronkei aurre egitearena izango da.

Zezen beltza aurrez aurre hartu eta adarretatik eusteko premiarena. Bai norbanako gisa, zein euskaldun gisa ere, ez badiogu zezen beltz oldarkorri adarretatik eusten, txarto behar gara izan.

Gaur egun pairatzen dugun sistema kapitalista, faxista, liberal berri eta globalizatzaileak, hainbat tresna erabiltzen ditu gu denok erdi akabatuta lagatzeko. Baina zoriorez hainbat herritarrek, enbidoari aurre eginaz, hor-dagoa bota dute.

Usurbilgo herrian antola-

tutako I. Auzolan Topaketetan, gaur egun daukagun gizarteari buruz berba egin zen eta atalez atal gure gizarteko hainbat esparru aztertu; hala nola, argindarra, euskalgintza, desahazkundera, elikadura, osasuna, kultura, hezkuntza...

Eta hasiera besterik izan ez bazen ere, eman dira aurreneko pausak eta jarriak dira hurrengo bilera egunak. Azaroaren 12an Iruñean bilduko gara, eta hemendik deia egiten dizuegu parte hartzera.

Abian da beraz Auzolan Ekimena eta gizarte berdintzaileagoa lortu asmoz auzolana eta batzarra bultzatu nahi ditu, herriz herri. Tokian tokiko burujabetasuna aldarrikatzen du eta hori lortzeko tresnak auzolana eta batzar

edo bilerak izango direla.

Benetan beldur handia ematen du zezen beltzak, denok ere lepotik harrapatzen baikaitu, baina talde-lanean menderatu dezakegu. Horrela egiten zuten lana gure antzinakoek eta geuk ere badugu zer ikasia haiengandik. Jasone Mitxeloren etxalartarrak idatzitako liburu bikainean, hainbat argibide lor daitezke: "Auzolanaren kultura. Iraganaren ondarea, orainaren lanabesa, etorkizunaren giltza" liburua izango da Auzolan Ekimena herriz herri eta auzoz auzo aurkezteko baliabidea eta dagoeneko salgai dago liburutegietan.

Bestalde, internet zaleentzat ere hortxe dago aukera, www.azulana.info web gunean, eta hor aurkitu daitezke ekimenari buruz beharrez-

ko informazio guztia.

Abian da Aro berria eta ilunpetan zegoen tunel umeletik ateratzen hasiak garenaz, argitasuna non-nahi antzematen da. Baina argitasun gehiegi izateak ere, nahasmena sor dezake. Geldialdia egin eta hausnartu beharra dago. Tunel osteko argitasuna zabalegia da eta bidea aukeratu beharra dago. Ez da makala aurrean daukagun mendi gailurra, baina handiagokoak direnak ere egin izan ditugu euskaldunok. Mendi tontor gainera igo behar dugu: Aurrera gizarte taldekoi eta berdintzaileak, aurrera auzolana eta batzarra!

Gurutz Garmendia
Auzolan Ekimena

Labaka eta Etxeberria elkarrekin lehian

- Bi herritarrek Usurbilgo Udaregi Sariketako finalean kantatuko dute larunbatean afalostean
- Hiru gazte eta hiru zahar lehiatuko dira Botta Punttuba Bertso Eskolak antolatutako sarian

Lasarte-Oriako Bertso Eskolaren ezaugarri da adin ezberdineko bertsolariak dihardutela, eta horietako bik, Ane Labakak eta Patxi Etxeberriak, Usurbilgo I. Udaregi Sariketako finalean kantatuko dute larunbatean, azaroaren 12an, Agerialde ikastolan. Usurbilgo Bota Punttuba Bertso Eskolak bertsolari gazte eta zaharrak lehian jarri ditu, adindunen kanporaketan Patxi Etxeberria, Martin Rezabal "Olaso", eta Luis Otamendi Andoni Otamendi bertsolariaren osaba sailkatu ziren eta gazteenean Ane Labaka, Maialen Velarde eta Aitzol Barandiaran.

Jon ALTUNA IZA

Igandean Gipuzkoako bertsolariaren txapelketatik kanpo geratu eta gero Ane Labakak soinean duen arantza ateratzeko aukera izango du asteburu honetan. Ostiralean Kanpezun kantatuko du Arabako Bertxoko sariketako bigarren kanporaketan, eta larunbatean, Usurbilen Udaregi sariketako finalean.

Azken hilabeteotan asko aritu da bertsoan, eta beraz, argi dauka Ane Labakak aste-buruan kantatu eta gero "pixka bat ahaztu" egin nahi duela bertsoetaz. Dena den, gustura joango da larunbatean, esan bezala, Aitzol Barandiaran, Patxi Etxeberria, Luis Otamendi, "Olaso" eta Maialen Velardekin batera Udaregi Sarira. Gai jartzailea, Bota-Punttuba eskolako Imanol Arabaolaza "Txatxari" izango da.

derekin batera Udaregi Sarira. Gai jartzailea, Bota-Punttuba eskolako Imanol Arabaolaza "Txatxari" izango da.

Bertso eskola indartzen

Usurbilgo bertso eskola aspaldikoa bada ere, duela bi urte gazte batzuek lekukoa hartu eta bertso afariak antolatzen hasi ziren. Amaia Olasagasti bertsozale lasarteoriatarra Botta Punttuba berrindartu duten taldeko kide da, buru belarri ari da antolaketan eta berak eman digu sariketaren berri: "bertso afariak arrakasta zutenek, afariak aitzakia erabiliz sariketa bat egitea erabaki zen. Plaza gutxi dituztenei txoko bat egitea gurenean helburu, beterranoak eta gazteak elkarren "aurka" jartzea aukera polita izan zitekeela iruditu zitzaigun, utzita dutenak edo uzten ari direnak eta plazan orain hasi direnak. Gainera, ziur aski gazteek gutxitan kantatu izango zuten, inoiz kantatu badute, beterrano hauekin eta alderantziz".



Ane Labakak ez zuen egun ona izan Azepeitian. Bihar Udaregiko finala du Usurbilen.

teak elkarren "aurka" jartzea aukera polita izan zitekeela iruditu zitzaigun, utzita dutenak edo uzten ari direnak eta plazan orain hasi direnak. Gainera, ziur aski gazteek gutxitan kantatu izango zuten, inoiz kantatu badute, beterrano hauekin eta alderantziz".

Beraz, "bi generazio oso ezberdinetako ahotsak entzuteko aukera paregabea izango da" larunbatean, Usurbilgo Ageri-alde ikastolan gaueko bederatzietan, afariaren ostean. Hala ere, Amaiak jakinarazi digunez, afariaren aurretik eta girotzen hasteko

arratsaldeko zazpitan herrian zehar kantu bertso poteoa egingo da, Usurbilgo kantu taldearekin batera.

Entzuleen parte hartzea

Usurbilgo bertsozaleei gaiak asmatzeko aukera eman zaie, baina Amaiak esan digunez, gai batzuek soilik jaso dituzte: "zaila da zaleen parte hartzea eta ez dugu arrakasta handiegirik izan. Hala ere, aipatzekoa da entzuleen parte hartzea saio guztietan bultzatu dugula, izan ere, saio bakoitzean finalera igaroko ziren hiru bertsolarietatik bat aukeratzen zuten entzuleek eta jolas polita sortu da. Finalean ere, entzuleen bozka gehien jasotzen dituen bertsolariak izango du saria".

Azkenik, gonbitea luzatu die Amaia Olasagasti herritar guztiei finalera joan daitezkeen "horrelako aukerak ez direlako maiz izaten", eta eskerrak eman "I. Udaregi Sariketari lagundu gaituzten guztiei". Afarira joateko txartelak Usurbilgo Txiriboga eta Bordatxo tabernetan daude salgai (18 eurotan) eta botapunttuba@gmail.com-en ere bai. Posta elektronikoko helbidean argibideak eman eta proposamenak onartzen dira. •

Lasarteoriatarrek Gpuntuako final-erdien atarian geratu dira

Andoni Otamendi, Unai Muñoa eta Ane Labaka Lasarte-Oriako bertsolariak ez dute Gipuzkoako txapelketako final-aurreetara pasatzerik izan. Muñoa izan da hurbilen, txartela lortzeko hiru punturen faltan geratu baita: 466 puntu eskuratu zituen igandean Azepeitian jokatu zen azken final-laurdenean eta 468,5ekin sailkatu da Ainhoa Agirreazaldegik. "Aurkezleak 472 puntu esan zuten, espero nuen nire izena entzutea, baina Inaki Apalategirena izan zen". Kartzelako saioaren aurretik ere ondo ikusten zuten bere burua, "ez erraz pasatzeko moduan, baina ezta kanpoan ere".

Ane Labaka eta Andoni Otamendik, aldiz, ez zuten egun ona izan final-laurdenean, ez ziren aldarde onarekin atera eta ezinean aritu ziren.

Aipagarri da, final zortzirenetan puntuaketa hobea izan zutela, 463,5 zortzirenetan eta 451 laurdenetan Anek eta are nabarmenago Andonirekin

kasuan, 484,5 zortzirenetan eta 431,5 laurdenetan.

Dena den, oro har, txapelketa ona egin dute eta bi fase pasatzeko gai izan dira. Ane Labaka izan da gainera bere belaunaldiko ordezkari bakarra final-laurdenetan. Azepeitiako kanporaketako agurrean aipatu zituen kideak, baina bera ere kanpoan geratu denez, bertsolari gaztetxo hauek ez dute ordezkariarik izango final aurrekoetan.

Ane Labakak atera den lehen urtean "nahikoa" egin duela uste du eta errepikatzeko gogoarekin geratu da. Astelehenetan esan zigunez, beste kanporaketa batzuetan "ideiak etortzen zitzaizkidan bezala Azepeitian blokeatuta nengoen" eta beraz kanpoan geratu zen. "Alde batetik lasaia nago, baina bestetik pena ematen dit joan zen jendearengatik".

Unai Muñoak ere ez du ukatu kanpoan geratzearen mina, baina Anek pena handiagoa ematen diola esan digu: "ni



Unai Muñoak Azepeitian kantatu zuen igandean. Andoni Otamendik Villabonan urriaren 23an.



jada lehen ere izan nintzen final-erdietan eta Euskal Herrikoan kantatu nuen" eta sorpresa handiak egon badira ere, esaterako Uxue Alberdi edota Inaki Gurrutxaga kanpoan izatea, harriduta da Unai bertsolari berrien aldetik ez delako sorpresarik egon: "Ane izan da aurrean ibili den bakarra".

Amaia Agirre tarteka Lasarte-Oriako eskolara etortzen den villabonatarra sailkatu da eta abenduaren 4an kantatuko du Galarreta pilotalekuan, hiruga-

ren final aurrekoan, Jokin Uranga, Ainhoa Agirreazaldegik, Inaki Apalategik, Inigo Mantzizidor "Mantxi" eta Jon Martinek batera. Bertan erabakiko dira zortzi finalistak izenak.

Aurretik, azaroaren 26an, Arrasaten Beñat Gaztelumendi, Agin Rezola, Alaia Martin, Felix Zubia, Iker Zubeldia eta Iban Urdangarinek kantatuko dute eta hurrengo egunean azaroaren 27an Tolosan, Jexux Mari Irazu, Aitor Sarriegi, Beñat Lizaso, Inigo Izagirre, Unai Agirre

eta Nerea Elustondok.

18 bertsolari hauetatik zortzi izango dira Donostiako Ilunbe Zezen Plazan abenduaren 18an goiz eta arratsaldeko jokatuko den Gipuzkoako bertsolari Txapelketaren finalean. Sarre-rak salgai daude Jalgi tabernan eta www.gpuntu.com web-ean. Gehienek faboritua Beñat Gaztelumendi da, Lasarte-Oriako bertsolariaren ustez berak irabaziko du eta "berak irabaztea nahi dut gainera" esan digu Ane Labakak. •